

GOBERNU BATZARRA

2015. 10. 05

Alkatea:

Olatz Peón Ormazabal

Zinegotziak:

**Patxi Amantegi Zubiria
Nerea Letamendia Belloso
Jokin Azkue Arrastoa
Iñigo Alonso Sarasibar**

Beh. Beh. Idazkaria:

Karmele Contreras Goikoetxea

Beh. Beh. Kontuhartzailea:

Paulino Alonso Eraso

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamabosteko urriaren bostean 08:00etan Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.

1.- Aurreko akta onartzea.

2.-Etxebizitza hutsak merkatuan jartzeko dirulaguntzak. 2014.

3.-Iurreamendi egoitza: Abuztuko faktura.

4.-Ikastetxeen mantenua: dirulaguntzak.

5.-Euskara errefortzua DBHko ikastetxeetan: dirulaguntzak.

6.-Etorkinen euskara errefortzua ikastetxeetan: 15-16 ikasturterako hitzarmenak.

7.-Etxez-Etxeko zerbitzua. Ilarkiren faktura.

8.-28/2015 zenbakia duen faktura-zerrenda.

1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2015eko irailaren 28an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

2.- Etxebizitza hutsak merkatuan jartzeko dirulaguntzak. 2014.

Gaia erabaki gabe geratu da datorren Gobernu Batzarrerara arte.

3.- lurreamendi egoitza: Abuztuko faktura.

lurreamendi egoitzak abuztuko kuoten likidazioa aurkeztu du.

Hori horrela, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- lurreamendi egoitzari ordaintzea abuztuko kuoten likidazioari dagokion zenbatekoa, **18.297,44 €**-koa, honela banatuta:

Autonomoen kostua: 649,76 €
Elbarrien defizita: 17.647,68 €

BIGARRENA.- Onartzea lurreamendi egoitzari maiatzeko likidazioaren ajustea, hau da, -4.440,75 €, Gipuzkoako Foru Aldundiak 2015eko behin betiko tarifak aplikatuta.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako departamentuari.

4.- Ikastetxeen mantenua: dirulaguntzak.

Tolosako eskoletan banatzen den mantenuko dirulaguntza Tolosan erroldatutako ikasle kopuruaren arabera egin du Euskara eta Hezkuntza batzordeak eta 2014. urteari dagokion banaketa onartu. Beraz, Gobernu batzarrak, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Aipatu banaketa onartzea, ondoren aipatzen den eran:

Ikastetxea	H.H. eta L.H.ko Tolosako ikasle kopurua	Diru kopurua ikasleko	Diru kopurua
Hirukide Ikastetxea	619 ikasle	30,53 € ikasleko	18.898,07 €
Laskorain Ikastola	953 ikasle	30,53 € ikasleko	29.095,09€
OROTARA	1.572 ikasle		47.993,16 €

BIGARRENA.- Ikastetxeei jakinaraztea dirulaguntza jasotzeko ekarri beharko dituztela faktura originalak edota berauen fotokopia konpultsatuak, honako kontzeptuei lotutakoak: atezaina, edifizioen konponketa arruntak, erregaiak, ura, argia eta garbiketa.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Euskara eta Hezkuntza departamentuari, Kontuhartzaileari eta aipatu diren ikastetxeei.

5.- Euskara errefortzua DBHko ikastetxeetan: dirulaguntzak.

Tolosako Udalaren laguntzarekin euskarazko errefortzu eskolak ematen dira ikasle etorkinentzat Tolosako DBHko hiru ikastetxeetan: Laskorain ikastolan, Orixe institutuan eta Hirukide ikastetxean.

14-15 ikasturtean, irakasle bat aritu da ematen errefortzu eskola horiek aipatutako hiru ikastetxeetan, eta ematen dituen zerbitzu horiek fakturatu dizkie hiler, Tolosako Udalak eta hiru ikastetxeek aurreko ikasturte bukaeran egindako proposamenari jarraituz. Proposamen haren arabera, Tolosako Udalak diru laguntza bat emango lieke proiektu horretan ari diren ikastetxeei, kontuan hartuta errefortzu eskolak ematen dituen irakasleak ikastetxeei, zerbitzu hori emateagatik, aurkeztutako fakturak.

Urte hasieran, hiru ikastetxeek 14-15 ikasturteko irail, urri, azaro eta abenduan errefortzu eskolak emateagatik egindako gastuei zegozkien fakturak aurkeztu zituzten (irakaslearena), Tolosako Udalak 6.378,36 euroko dirulaguntza eman zien, Gobernu Batzarrak 2015eko otsailaren 6an hartutako erabakiaren bidez.

14-15 ikasturtea amaitu delarik, aipameneko hiru ikastetxeek ikasturteko bigarren ataleko gastuen agiriak eta ikasturte osoaren likidazioa aurkeztu dituzte, Udalaren dirulaguntza eskuratu ahal izateko.

Hizkuntza Politika eta Hezkuntza batzordeak, kontuan hartuz, batetik, Hirukide ikastetxeak, Orixe institutuak eta Laskorain ikastolak aurkeztutako dokumentazioa eta, bestetik, euskarazko errefortzu eskolen plangintzaz lehendik hartuta dauden erabakiak (Gobernu Batzarra, 2014-07-18),

Gobernu Batzar honek, aipatuta kontuan izanik eta Hizkuntza Politika eta Hezkuntza batzordeak egin duen proposamenarekin bat etorritz, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Honako dirulaguntza hauek ematea aipameneko ikastetxeei, 14-15 ikasturteko urtariletik ekainera bitartean eman dituzten euskarazko errefortzu eskolengatik eta ikasturte osoko likidazioa egiteko:

Hirukide ikastetxeari	4.476,28 euro
Laskorain ikastetxeari	4.476,28 euro
Orixe institutuari	4.476,28 euro

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Hizkuntza Politika eta Hezkuntza departamentuari eta interesatuei.

6.- Etorkinen euskara errefortzua ikastetxeetan: 15-16 ikasturterako hitzarmenak.

Tolosako Udalaren laguntzarekin euskarazko errefortzu eskolak ematen dira ikasle etorkinentzat Tolosako DBHko hiru ikastetxeetan: Laskorain ikastolan, Orixe institutuan eta Hirukide ikastetxean.

Gobernu Batzarrak, Hizkuntza Politika eta Hezkuntza batzordeak jaulki duen diktamenarekin bat etorriz, aho batez eta alkatek emando ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Ontzat jotzen du plangintza eta, 15-16 ikasturteari begira, eta egitasmoarekin jarraitzearen alde agertzea.

BIGARRENA.- Tolosako DBHko ikastetxe bakoitzarekin (Hirukide, Laskorain eta Orixe) hitzarmen bat egitea helburu horrekin.

HIRUGARRENA.- Onartzea hitzarmen proposamena (espedientean agertzen dena).

LAUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Hizkuntza Politika eta Hezkuntza departamentuari eta Hirukide, Laskorain eta Orixe ikastetxeei.

7.- Etxez-Etxeko zerbitzua. Ilarkiren faktura.

Ilarki Elkargoarekin kontratua sinatu zen 2012ko abenduaren 28an, Etxez Etxeko zerbitzua emateko.

Hori horrela izanda, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Ilarki Elkargoak aurkeztutako 76.356,02 euroko faktura onartzea, iraileko Etxez Etxeko zerbitzuko orduen kontzeptuan.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako departamentuari eta Ilarki elkargori.

8- 28/2015 zenbakia duen faktura- zerrenda.

Kontuhartzaitzak **28/2015** faktura zerrenda aurkeztu du; **201.978,88** €-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- 28/2015 faktura zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

Gai zerrendatik aparte eta daukan premia kontuan izanik, ondoren aipatzen den gaia tratatzen da:

Baldintza Administratibo partikularren plegua, prozedura irekiaren bidez kontratatzeko "Etxeetako bihondakinak eta errefuxa gaika biltzeko edukiontzien hornidura".

Ikusirik "Etxeetarako bihondakinak eta errefuxa gaika biltzeko edukiontzien hornidura" kontratazioarako Baldintza Administratibo Partikularrak, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea kontratazio espedientea, prozedura irekiaren bidez, "Etxeetako bihondakinak eta errefuxa gaika biltzeko edukiontzien hornidura" kontratatzeko.

Lizitazio-tipoa hau da:.....120.000,00 euro (BEZ barne).

Prezio hori honelaxe dago banatuta:94.800 euroko balio estimatua eta 25.000 euro BEZa

BIGARRENA.- 120.000 eurokoa (BEZa barne) gastua baliatzea, 2015 kreditu aldaketaren kargura.

HIRUGARRENA.- Onartzea klausula administratibo partikularren plegua, aipameneko hornidura kontratatzeko.

LAUGARRENA.- Adjudikatzeko prozedurari hasiera ematea eta, horretarako, lizitazioaren deia egitea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Kontratatzailearen profilean.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 10:00etan.

ALKATEA

Beh. Beh. IDAZKARIA